



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasuna
Igualdad

Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala – Consejo Sectorial para la Igualdad

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Eguna, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2016ko azaroaren 30a / 30 de noviembre de 2016 Urgull Aretoa, Udaletxea / Sala Urgull, Edificio Consistorial 18:00 / A las 18:00 horas
Amaiera-ordua Hora de finalización	20:00 / A las 20:00 horas

GAI-ZERRRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

<ol style="list-style-type: none"> 1. Aurreko aktaren onarpena 2. Azaroaren 25a eta Indarkeriari buruzko Batzordea 3. Emakumeen Etxearen 2015-2016 ikasturteko Memoria 4. Berdintasunerako Aurrekontua 5. Beste hainbat 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aprobación del acta anterior 2. 25 de noviembre y comisión de violencia 3. Memoria curso 2015-2016 de la Casa de las Mujeres 4. Presupuesto de Igualdad 5. Varios
--	--

BILERAN PARTE HARTU DUTE:**HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:**

KONTSEILUKO LEHENDAKARIA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	PSE-EE: Duñike Agirrezabalaga, Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria PSE-EE: Duñike Arrizabalaga, concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad Cívica, Igualdad y Cooperación	
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	1. EH BILDU 2. IRABAZI - GANAR DONOSTIA 3. PSE – EE 4. EAJ - PNV	1. Naiara Sampedro 2. Arantza Gonzalez 3. Begoña Palos 4. Marije Zelaia
HERRITARREN ELKARTEAK ETA, BERDINTASUN ARLOAN, GIZARTEAN GARRANTZI BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOAK ENTIDADES CIUDADANAS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD	1.- ASADE Elkartea / Asociación ASADE 2.- ASADE Sindikatua / Sindicato ASADE 3.- Emakume Bananduen Elkartea / Asociación de mujeres separadas 4.- ERNE 5.- ELKARTU (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioa / Federación de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa) 6.- Haurralde Fundazioa 7.- Plazandreok 8.- Donostiako Berritzegunea	
EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE EDO EZ DIRA ETORRI EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON	1.- EMAKIN 2.- ARRATS Elkartea / Asociación ARRATS 3.- Dandai 4.- INTXAURRONDO BERRI 5.- EMAKUMEAK ETA HIRIA FOROA / FORO MUJERES Y CIUDAD 6.- LAB 7.- PP	
UDAL TEKNIKARIAK CUERPO TÉCNICO MUNICIPAL	Berdintasun Agentea / Agente de Igualdad	Naiara Garate
	Atalaren burua / Jefa de Sección	Silvia Carballo
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialeko hamahiru kide, Berdintasuneko zinegotzia eta bi udal teknikari, idazkaritza tekniko lanetan. Emakumezkoak / Mujeres = 15 Gizonezkoak / Hombres = 0 13 personas integrantes del Consejo Sectorial para la Igualdad, además de la Concejala delegada de Igualdad, y 2 representantes del cuerpo técnico municipal como secretaria técnica	
KONTSEILUKO IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO	Berdintasun Bulegoa - Negociado de Igualdad : Emakumeen Etxea, Okendo 9 / 943 48 34 64 / berdintasuna@donostia.eus	

SAIOAREN BILAKAERA: DESARROLLO DE LA SESIÓN:

1. Aurreko Kontseiluaren akta onartzea

2. Azaroaren 25a eta Indarkeriari buruzko Batzordea

Berdintasuneko teknikariak azaldu duenez, urtero justu samar ibiltzen gara denboraz, ekintza asko azaroaren 25a baino askoz ere lehenago egiten direlako. Horregatik, pentsatu dugu datorren urtean kanpaina osoko epeak aurreratuko ditugula: Usandizagarekiko elkarlana, ekintzak bildu eta zabaltzea, prentsaurrekoa, erakunde-adierazpena...

Irabazi taldearen ordezkariak galdetu du ea elkarlana beti Usandizagarekin egiten den eta ea pentsatzen ari diren beste zentro batzuetara ere zabaltzea. Teknikariak dio baietz, hala dela, Usandizaga delako hiriko zentro publiko batean eskaintzen den diseinu grafikoko eta publizitateko prestakuntza-ziklo bakarra. Berritzeguneak-en ordezkariak gaineratu du urtero, azaroaren 25a dela-eta, gutun bat bidaltzen zaiela ikastetxe guztiei.

Haurralderen ordezkariak dio zinegotziak emandako prentsaurrekoari buruzko artikulua bat irakurri duela eta, bere iritziz, ez zela ondo jaso elkarteek egiten duten lana. Horregatik, aurrerantzean hobeto egiteko eskatu du.

Bestalde, indarkeria matxista lantzen ari den taldeak adierazi du azaroaren 25eko udal manifestuaren irakurketa aztertu dutela, eta aipatu dute zer aldatu zuen Udalak, zer ez zuen irakurri eta zer gaineratu zuen. Gainera, haien esanetan, ez zuten denbora nahikoa izan ahaleginak egiteko alderdi politikoek aldatu ez zezaten emakumeen elkarteek adostutakoa. Bere ustez, puntu garrantzitsuak aldatu ziren, hala nola, aurrekontuari buruzko aipamenak, komunikabideei buruzkoak eta Istanbuleko Hitzarmenari buruzkoak, sarrera bera ere aldatzeaz gain. 2017an beste adierazpen bat egin dezatela eskatu beharrean, horretan onartutako konpromisoei jarraipena eman behar zaiela diote.

1. Aprobación del acta del Consejo anterior

2. 25 de noviembre y comisión de violencia

La técnica de igualdad explica que todos los años solemos andar con el tiempo justo, ya que muchas actividades se realizan mucho antes del 25 de noviembre. Por eso, hemos pensado que el año que viene vamos a adelantar los plazos de toda la campaña: la colaboración con Usandizaga, la recopilación y difusión de actividades, la rueda de prensa, la declaración institucional...

La representante de Irabazi pregunta si se hace siempre con Usandizaga, y si está pensado ampliar a otros centros. La técnica explica que así es, porque es el único ciclo formativo de diseño gráfico y publicidad que se ofrece en un centro público en la ciudad. La representante de Berritzeguneak añade que cada año, con motivo del 25 de noviembre, se envía una carta a todos los centros educativos.

La representante de Haurralde interviene, y comenta que ha leído un artículo de la rueda de prensa de la concejalía, que en su opinión no reflejaba el trabajo que hacen las organizaciones, por lo que pide que se haga mejor en el futuro.

Por otra parte, el grupo que está trabajando la violencia machista, refiere que ha analizado la lectura del manifiesto municipal del 25 de noviembre, y señalando lo que el Ayuntamiento cambió, lo que no leyó, y lo que agregó. Afirman, además, que les faltó tiempo para intentar que los partidos políticos no cambiaran lo que las asociaciones de mujeres habían consensuado. Consideran que se modificaron puntos importantes, ya que se cambiaron o eliminaron referencias al presupuesto, a los medios de comunicación y al Convenio de Estambul, además de modificar la introducción. Más que pedir otra declaración nueva en 2017, hay que darle seguimiento a los compromisos asumidos en esa declaración.

EH Bilduren ordezkariak esan duenez, harrituta dago talde politikoek ez dutelako jaso aurtengo programa, urtero jasotzen duten arren. Kezkatzen du, baita ere, indarkeriari buruzko taldeak azaldutakoak: berak dioenez, bere taldeak proposamena jaso zuen; ekarpen txiki bat egin zuten, mugimendu feministaren manifestazioan parte hartzera deitzearen inguruan, Irabazik bezala, eta, handik aurrera, galdu zuen dokumentuaren arrastoa. Bere ustez, horrelako gauzak hobeto kudeatu behar dira.

Irabazi taldearen ordezkariak azaldu duenez, bere erakunde-adierazpena prestatu zuen, EH Bilduk bezala, eta taldekide guztiei bidali zien. Gero, manifestu-proposamena jaso zuen, eta berek bi aldaketa minimo egin zizkieten. Jaso zuen hurrengo gauza behin betiko adierazpena izan zen. Ez zekien beste aldaketa batzuk ere egin zirela.

Berdintasuneko zinegotziak aditzera eman duenez, berak indarkeriari buruzko taldearen proposamenak, EH Bildurenak, Irabazirenak eta EAJrenak jaso zituen. Gero, talde politikoek behin betiko testua egin zuten, eta horixe irakurri zen. Gobernuko alderdiek ere beren proposamenak zituzten, baina albo batera utzi ziren, taldearena onartzeko.

Plazandreok-en ordezkariak Kontseiluari errespetua izateko eskatu du. Izan ere, alderdi politikoek nahi dutena egiteko ahalmen osoa badute ere, kontuan hartu beharko lukete, testuan hain aldaketa garrantzitsuak egin baino lehen, taldeak ahalegin handia egin duela, denbora luzean, hori sortzeko. Haren ustez, gutxienez, egindako aldaketak jakinarazi behar zitzaizkien guztiei, bai eta azken emaitzaren berri eman ere. Bestalde, aditzera eman du datorren urtean Espainiako Estatu ebaluatuko dela Istanbulen Hitzarmenari dagokionez, eta Udalak beharrezko datuak eman beharko lituzkeela.

Talde politikoek ordezkariak manifestua idazteko prozesuan gertatutakoaz eztabaidatu dute. Indarkeriari buruzko taldearen ordezkariak protesta egin dute behin betiko testu aldatua jaso ez dutelako. Haurralderen ordezkariak eskatu du sinatutakoaren gainean eraikitzeko, aho batez sinatu baita. Berdintasuneko zinegotziak barkamena eskatu

La representante de EH Bildu muestra su extrañeza porque los grupos políticos no hayan recibido el programa este año, cuando lo reciben todos los años. Le preocupa también lo que plantea el grupo de violencia, y explica que su grupo político recibió la propuesta, hicieron una pequeña aportación sobre la llamada a formar parte en la manifestación del movimiento feminista, al igual que Irabazi, y a partir de ahí perdió la pista de qué sucedió con el texto. Cree que hay que gestionar mejor este tipo de cosas.

La representante de Irabazi explica que preparó su propia declaración institucional, tal como hizo EH Bildu, y la envió a todas las integrantes del grupo. Después recibió fue la propuesta del manifiesto, a la que hicieron 2 cambios mínimos, y lo siguiente que recibió fue la declaración definitiva. Desconocía que se habían hecho otras modificaciones.

La concejala de igualdad, por su parte, dice que ella recibió las propuestas del grupo de violencia, de EH Bildu, de Irabazi y del PNV. Luego se reelaboró el texto definitivo por parte de los grupos políticos, y ese fue el texto que se leyó. Los partidos del gobierno también tenían sus propuestas, pero se dejaron a un lado para aceptar la del grupo.

La representante de Plazandreok reclama respeto para el Consejo, ya que, aunque los partidos políticos tienen toda la potestad para hacer lo que quieran, deberían tener en cuenta que el grupo ha invertido mucho tiempo y esfuerzo, para que luego se hagan cambios de tal calado en el texto. Por lo menos, cree que se tenían que haber compartido los cambios realizados, y que se conociera el resultado final. Por otro lado, explica que el año que viene el Estado Español va a ser evaluado respecto al convenio de Estambul, y el Ayuntamiento debería facilitar los datos necesarios.

Las representantes de los grupos políticos debaten en torno a lo sucedido en el proceso de elaboración del manifiesto. Las representantes del grupo de violencia presentes protestan por no haber recibido el texto definitivo modificado. La representante de Haurralde pide construir sobre lo ya firmado, ya que ha sido por unanimidad, y la concejala

du presagatik egindako akatsengatik eta ziurtatu du datorren urtean hobeto egingo dela.

Plazandreok-en ordezkariak galdetu du ea denok ontzat jotzen duten Indarkeriaren Batzordea izatea sinatutako adierazpenaren segimendua egingo duena. Ados daudela adierazi dute eta aktan berariaz jasotzeko eskatu dute.

3.-Elkarte bakoitzak zer egiten duen jakitea

Batzorde Iraunkorrak beharrezkotzat jotzen du Kontseiluko elkarteek elkar ezagutzea eta bakoitzak jakitea besteez zer egiten duten. Berdintasuneko teknikariak azaldu duenez, halako zerbait egin zen lehenago Emakumeen Etxean, zerbitzuei dagokienez. Eta Kultur Aniztasunaren Atalean, hiriko elkarten gida bat dago, elkarte bakoitzak zer eskaintzen duen eta zer egiten duen azaltzen duena. Antzeko gida bat egin daiteke Berdintasunean.

Ondoren, iritziak trukatu dituzte Berdintasun Atalaren web orriari buruz: hara jotzea erraza den ala ez eta bertan dagoen informazioa egokia den ala ez. Eguneratua egon dadin eta kanpainez, Kontseiluaz eta elkarte-mugimenduaz ahalik eta informazio gehien eman dezan eskatu dute.

4.-2015-2016 ikasturteko Emakumeen Etxeko memoria

2015-2016 ikasturteko memoria web orrian dago jada, pdf formatuan, eta, aktarekin batera, lotura bidaliko da. Emakumeen Etxean, ale fisiko batzuk daude, baina, duten kostuagatik, ez da aurreikusitako jende askori ematea.

EH Bilduk galdetu du ea zergatik orain memoriak ikasturteko egiten diren eta ez urteko, lehen bezala. Erantzun diotenez, kogestioan hala erabaki dute, Etxearen erritmo naturala irailetik ekainera doalako.

Eztabaida txiki bat izan dute Kontseiluko elkarteek Emakumeen Etxean parte-hartzeaz, eta alderantziz. Bestalde, planteatu dute ea egokia den Kontseiluan eztabaida eta interpelazio politikoak egitea, eta haiek egiteko modua ere proposa den.

de igualdad pide disculpas por los errores cometidos debido a las prisas, y asegura que el año que viene se hará mejor.

La representante de Plazandreok pregunta si hay acuerdo en que la comisión de violencia sea la encargada de dar seguimiento a la declaración firmada. Se acuerda que sí, y se pide expresamente que conste en acta.

3.- Plantear la necesidad de conocer lo que hace cada asociación

En la comisión permanente se ha visto la necesidad de que las asociaciones del Consejo se conozcan entre ellas, y sepan lo que hacen las demás. La técnica de igualdad comenta a modo de ejemplo que ya se hizo en la Casa de las Mujeres con respecto a los servicios. Y en el departamento de diversidad cultural hay una guía de asociaciones de la ciudad, en la que se explicita qué ofrece y qué hace cada una. Se puede realizar una guía similar en igualdad.

Se abre a continuación un intercambio de comentarios sobre la accesibilidad de la web del área de igualdad en el Ayuntamiento, y la información que hay en ella. Se pide que esté actualizada, y con la máxima información posible sobre las campañas, el Consejo, y el movimiento asociativo.

4.- Memoria curso 2015-2016 de la Casa de las Mujeres

La memoria del curso 2015-2016 ya está en pdf en la web, y se mandará el enlace junto con el acta. En la Casa de las Mujeres hay algunos ejemplares físicos, que por su coste, no se prevé repartir masivamente.

EH Bildu pregunta por qué ahora las memorias se realizan por curso escolar, y no por año natural como antes. Se le responde que así se ha decidido en la co-gestión, ya que el ritmo natural de la casa es de septiembre a junio.

Se abre un pequeño debate en torno a la participación de asociaciones del Consejo en la Casa de las Mujeres, y viceversa. También se plantea la conveniencia o no de que en el Consejo tengan lugar discusiones e interpelaciones políticas, así como las formas en que se realizan.

Azkenik, Asade sindikatuaren ordezkariak eskerrak eman ditu Lalaren partetik (Asade elkartekoa), ama hil zitzaionean jasotako doluminengatik.

5.- Berdintasunerako aurrekontua

Kontseiluko kide batzuek galdetu dute zergatik kendu duten "Eraldaketa feministarako ekintzat" kontu-sailaren izena (Kontabilitateak hartutako erabakia da, aurrekontua sinplifikatzeko). Eta zergatik ez den handitu elkarreentzako diru-laguntzetarako kontu-saila.

Irabazi taldearen ordezkariak galdetu du zertan diren beste sailletako kontu-sail "moreak" (berdintasunerakoak). Berdintasuneko teknikariak azaldu duenez, 2015az geroztik, sail bakoitzarekin adosten dugu gutxienez 3.000 € emateko berdintasun arloko ekintza zuzenetarako. Argi dago hori ere hobetu behar dela, baina abiapuntu bat da.

Irabazi eta EH Bildu taldeen ordezkariak adierazi dutenez, termino erlatiboetan, aurten berdintasunerako erabiliko den ehuneko ia zehazki txikiagoa da: dezima bat jaitsi da eta % 0,17ra iritsi.

Plazandreok-en ordezkariak eskatu du aktan jasotzeko Kontseiluko kideak ez daudela ados berdintasunerako baliabide gutxiago erabiltzearekin.

Haurralderen ordezkariak esan du tamalgarria dela ikerketa-bekarako deirik ez egitea eta uste du, bestalde, elkarreentzako diru-laguntzak hobetu beharko lirakeela.

EH Bilduk jakinarazi du zuzenketa bat aurkeztuko dutela, hiriko puntu kritikoen kontu-saila handitu dadin eta ikerketa-beka bat berriro eman dadin. Bestalde, Emakumeen Etxean obrak egiteko, aurrekontuetan kontu-sail bat jasotzeko eskatuko dute eta, bestalde, kontu-sail txiki bat Kontseilurako, uste baitute diru-kopururen bat eman behar zaiola erakunde horri.

Berdintasuneko zinegotziak eskerrak eman ditu ekarpenengatik, eta adierazi du guztiak gogoan hartu dituela eta hurrengo kontseiluan behin betiko aurrekontua ekarriko duela.

Por último, la representante del sindicato Asade da las gracias de parte de Lala (asociación Asade) por los pésames recibidos por el fallecimiento de su madre.

5.- Presupuesto de Igualdad

Integrantes del Consejo preguntan por qué se ha eliminado el nombre de la partida "Actividades para la transformación feminista" (decisión de contabilidad, para simplificar el presupuesto), y por qué no ha aumentado la partida de subvenciones a las asociaciones.

La representante de Irabazi pregunta por las partidas "moradas" (para igualdad) de otros departamentos. La técnica de igualdad explica que desde 2015 acordamos con cada departamento que destinen al menos 3.000 € para acciones directas de igualdad. Está claro que hay que mejorar, pero es un punto de partida.

Las representantes de Irabazi y EH Bildu refieren que, en términos relativos, el porcentaje destinado a igualdad es menor que el año anterior, descendiendo una décima hasta llegar al 0,17%.

La representante de Plazandreok pide que conste en acta el desacuerdo de las integrantes del Consejo con que haya menos recursos para igualdad.

La representante de Haurralde lamenta que no se vaya a convocar la beca de investigación, y cree también que habría que mejorar las subvenciones a las asociaciones.

EH Bildu informa de que van a presentar una enmienda para que se incremente la partida para la solución de puntos críticos de la ciudad, así como para que se vuelva a incluir una beca de investigación. También pedirán una partida presupuestaria para obras en la Casa de las Mujeres, y una partida pequeña para el Consejo, ya que cree que hay que dotarle de cierta cuantía.

La concejala de igualdad agradece las aportaciones, toma nota de todas ellas, y en el próximo Consejo traerá el presupuesto definitivo.

6.- Beste hainbat

Plazandreok-en ordezkariak eskatu du zorionak emateko, Kontseiluaren izenean, historia osoan EHUn izan den lehen emakume errektoreari, Nekane Balluerkari. Proposamena onartu da eta Berdintasuneko teknikariek beteko dute.

Bestalde, gogora ekarri du, berriz ere, Lilatoia 11:00etatik 10:00etara aurreratzeagatik azaldutako kexa, hala lasterketak ikusgaitasuna galtzen duelakoan. EAJ taldearen ordezkariak erantzun du lasterketa guztiak ordubete aurreratu direla, hiria ahalik eta lasterren bueltatzeko normaltasunera. Kontseiluko kide batzuek erantzun dute beste ekitaldi batzuen kasuan ez dagoela arazorik hiria egun oso batean, edo gehiagotan, geldirik egoteko.

Eskatu dute Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak Kontseiluan agertu eta erabaki hori zergatik hartu duen azaltzeko.

Irabazi taldearen ordezkariak prostituzioa iragartzen duen orri bat aurkeztu du, Igarako etxeetako buzoietan agertu dena. Kezka azaldu du horrelako propaganda behin eta berriz agertzen delako, eta nabarmendu du gizakien salerosketa sareekin duen harremana. Eskatu du Kontseiluak Herri Segurtasuneko zinegotziari eska diezaiola azaltzeko nola tratatzen ari diren gai hori. Asade sindikatuaren ordezkariak gogora ekarri du gauza bera gertatzen dela egunkari askotan plazaratzen diren iragarkiekin. EAJko zinegotziak horren berri emango dio Herri Segurtasuneko zinegotziari.

Zinegotzi horren agerpena ere eskatu dute, gaiari buruz hitz egiteko.

Batzorde Iraunkorra urtarrilean bilduko da eta orduan proposatuko du Kontseiluaren hurrengo bilerak noiz egin.

6.- Varios

La representante de Plazandreok pide que se envíe una felicitación a la primera rectora de la historia en la UPV-EHU, Nekane Balluerka, en nombre del Consejo. Se aprueba. Lo harán las técnicas de igualdad.

Por otra parte, vuelve a recordar la queja porque la Lilaton se adelantó de las 11:00 a las 10:00, con lo que se pierde visibilidad. La concejala del PNV responde que se adelantaron una hora todas las carreras, con el objetivo de que la ciudad vuelva a la normalidad lo antes posible. Varias integrantes del Consejo replican que para otros eventos no hay problemas en parar la ciudad durante días enteros.

Solicitan que la delegada de movilidad comparezca en el Consejo para argumentar su decisión.

La representante de Irabazi muestra un anuncio de prostitución, buzoneado por las casas en Igara, mostrando su preocupación por la reiteración de este tipo de propaganda, y su relación con las redes de trata. Pide que el Consejo pida al concejal de seguridad ciudadana que explique cómo están tratando este tema. La representante de sindicato Asade recuerda que ocurre lo mismo con los anuncios en muchos periódicos. La concejala del PNV se lo hará llegar al concejal de seguridad ciudadana.

También solicitan la comparecencia del concejal de seguridad ciudadana para tratar este asunto.

La permanente se reunirá en Enero y traerá la propuesta de las fechas de las siguientes reuniones del consejo.